



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko uztailaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko uztailaren seian, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne, M. GOICOCHEA Iñaki,
Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 2a
Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 2a

3.ERABAKIA : BORDELEKO AKAMEDIAREKIN DIRUZTATZE HITZARMEN BATEN IZENPETZEA ESKOLETAKO OINARRI NUMERIKOAREN PROIEKTU DEIALDIRAKO

Nomenklatura : 8.1

Auzapezak oroitarazten du Herriko Kontseiluari Hezkuntza nazionaleko ministeritzak proiektu deialdi bat plantan eman duela eskola guzietan numerikoaren orokortzearen sustengatzeko.

Oroitarazten du herriak diru-laguntza txosten bat bete duela Ortzaize herriko hiru eskolek hornidura numerikoak eskura ditzaten.

Zehazten du Hezkuntza nazionaleko ministeritzak axtikia duen diru-laguntza 10 920 eurokoa dela (3 500 euro hornidura numeriko + 140 euro baliabide eskolaka) eta diru-laguntza 7 560 eurokoa dela.

Jaun Auzapezak proposatzen du kontseiluari diruztatze hitzarmen horren izenpetzea Akitania Berriko eskualdearekin.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,

- **BAIMENTZEN DU** Auzapeza diruztatze hitzarmenaren izepetzea Akitania Berriko eskualdearekin.

- **BAIMENTZEN DU** Auzapeza dozier horri loturik den edozein dokumenturen izepetzea edo edozoin pausuren gauzatzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko uztailaren 28an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/07/29an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/07/29a